

Estoniarrak ulertzekotan

BALTIKAR errepubliketan (eta ez hauetan bakarrik) 'sozialismoa' re- kiko arbuio osoa gailendu da. Ez dute aurreko sistimaz ezer nahi. Estonian, adibidez (Eesti-n hobe, Euskal Herrian Vasconian baino egokiago den arrazoi berberengatik), 50 urtez ezagutu duten politikabidea errotik erauzi nahi dute, hankaz gora bota, Lenin-en imajinak eta guzti. Zergatik?

Joera hori, 'eskuindartze' hutsa omen da. Estoniar abertzaleek (estoniarrak oro dira abertzaleak, bidenabar esateko; honetan bai desberdintasun nabarmena Eesti eta Euskal Herriaren artean) ez dute marxismo-leninismoaz deusik nahi, eta erusiarrez ez asko ere gehiago.

Estoniarrak hobeki ulertzekotan pres- tatu ditugu lerro hauek.

1921eko irailaren 22an (orain dela 70 urte, beraz) Nazioen Elkarte, SDN zela- koak, ontzat hartu zuen estoniar Errepub- blika. Eta askaturik egon zen 19 urtez; Stalin-ek 1940ko ekainaren 17an okupa- tu zuen arte.


Handik hilabetera, okupazio betean antolatutako 'hauteskunde' izeneko montai- a baten ondorioz, Sovietar Agin- tea onartu zen, baita ESSBan Estonia sartzea. 1940ko uztailaren 22a zen.

Geroztik «sozialismoan bizi izan dira estoniarrak; perestroika 'ustela' ren gi- roan. 1990eko martxoaren 12an Eestik bere Askatasuna (bere Independentzia, zehazkiago) aldarrikatu zuten arte.

Ikus dezagun, laburki bederen, nola bizi izan duten estoniarrek beren 'sozia- lismo' aroa, gero etorri omen den 'es- kuindarkeria' nagusitu artean.

1940ko udan, 'sozialismo' ra pasatze- rakoan, eta berehala, uztailan bertan, soviatarrek 149 pertsona arrestatu zituz- ten eta beste 5 Siberiara deportatu. Lehenengo biktima horien artean, bi es- toniar buruzagi: Johan Laidoner, Estonia Askatuko Armadaburua; eta Konstantin Päts, Errepublikako Presidentea. Horra hor 'sozialismoa' ren hasera.

Ondoko hilabeteetan, eta deportazio orokorrak hasi arte, hilabetean 200/400



T X I L L A R D E G I

estoniar atxilotu zituzten hilabetero.

Masa-deportazioak 1941eko ekainean hasi ziren. Hiru gautan (sistema berbera erabili zuen Stalinek Kaukasoan eta beste lekutan) 10.000/11.000 pertsona depor- tatu zituen kolpez (kopuru zehatza jaki- terik ez dago). Deportazioa genozidio- helburu nabarmenekin egin zen: depor- tatu horien artean %80 emakume hel- duak ziren. Zahar gutxi (%6 bakarrik).

DESAGERKETAK ere hasi ziren: 1941-1942 urteetan 60.000 bat estoniar 'desagertu' ziren (Estoniak 1.136.000 bizilagun zituen 1939an). Her- rian zabaldu zen beldurrarengatik, beste 72.000 estoniarrek jo zuten Mendebalde- ra.

Ondorio demografikoa hau izan zen: 1945eko urtarrilean 854.000 biztanle besterik ez zegoen Estonian. Kenketa egitea erraza da; 282.000 pertsona (po- pulazioaren %24,8).

Sovietar Batasunaren 'segurtasuna' dela-eta, Suomi-ri Karelia kendu zitzaion bezalaxe, Eesti-ri Ipar-Ekialdeko eskual- de bat kendu zitzaion; Errusiarren one- tan: 1.986 kilometro karratu (Gipuzkoa- ren tamainako puska bat; 39.000 biztan- le, 1944an).

Eta Moskuk deportazioei eutsi zien. 1949ko martxoan, beste 20.702 estoniar eramán zituzten Siberiara. Erdia ema-

kumeak berriro ere, gehi %28, 15 urtetik beherakoak.

Husketa horiekien batera, etorkinen olatuak hasi ziren. 1945eko ekainaren 10ean, Leningrado eskualdeko gasaren esplotazioa hasi zen. Narva hirian, erru- siarrak nagusitu ziren (gaur egun 85.000 biztanle, %4 bakarrik estoniarrak dire- larik).

Gasaren ondorioz etorritako etorkinei eta bertako langileei bizilekua emateko, 228.000 etxebizitza eraiki ziren Leningra- don, baina 6.000 bakarrik Tallinnen.

Esan beharrik ez dago: egoera diglo- sikoa nagusitu zen erabat. Errusiera beharrezkoa zen, baina eestiera maila pribatura bildua. Estoniarrak elebidunak ziren derrigorrez, bertara etorritako erru- siarrak eta gainerako eslaviarrak eleba- kar gelditu zirelarik. Horren ondorioz, Ipar-Ekialdeko Estonian eta Tallinn hiri- buruan errusiera da nagusi. Okupazioa gertatu baino lehenago, Estoniako %94 ziren estoniarrak. Gaur egun %60 bes- terik ez.

Okerrago dago egoera, esana dugu- nez, Tallinn hiriburuan. Estoniarrak gutxiengo dira momentu honetan: %47.40 (1989).

'SOZIALISMO'AREN garaian, azkar irakasten zen errusiera eestitar eskoletan; alderantzizkoa (ees- tiera errusiar eskoletan) gertatzen ez zelarik. Errusifikazio kanpainak aurrera joan dira 1978ra arte... Doktorego-Tesiak estonieraz egitea 1976an debekatu zen...

Jendeak marxismo-leninismoa zer den ez dakiela esatea ezinezkoa da. Praktikan ezagutu dute 50 urtez; eta teorian ere bai. Eskola-urteetan irakastaldiaren heren bat ideologiaren klasetan erabiltzen zen: Alderdi Komunistaren Kondaira, Eko- nomia Sozialista, Filosofia Marxista, Zientziatzko Komunismoa, Zientziatzko Jaiakogabatasuna, eta abar...

Zulo horretatik irtetea, eta hartara itzuli nahi ez izatea, «eskuindarkeria» tzat sala- tzen baldin bada, fabore galanta egiten zaie eskuindarrei.